

VITORIA - GASTEIZKO
ERIZAINZAKO UNIBERTSITATE - ESKOLA
ESCUELA UNIVERSITARIA DE ENFERMERÍA
DE VITORIA - GASTEIZ

ERIZAINZAKO GRADUA



Osakidetza



Universidad
del País Vasco



Euskal Herriko
Unibertsitatea



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SALUD

www.euenfermeria.org

ZENTROAREN AURKEZPENA

Vitoria-Gasteizko Erizaintzako Unibertsitate Eskola Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiaren menpe dagoen zentro publikoa da, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren babesean eta ondorio akademikoetarako 1978ko apirilaren 11ko agindu bidez (78-5-10eko BOE) Euskal Herriko Unibertsitateari (UPV/EHU) atxikita dagoenaz, alegia. Atxikipen-hitzarmen hori 2011ko azaroaren 22an eguneratu zen eta Osasun eta Kontsumoko Sailburuaren 2012ko martxoaren 19ko Aginduan argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

Zentroaren Eginkizuna da erizaintzako profesional generalistak prestatzea, prestakuntza zientifikoa eta giza prestakuntza nahikoa dutenak artatzen dituzten pertsonen osasun-beharrei egokitutako atentzio sanitario tekniko eta profesionala emateko, uneko ezagutza zientifikoaren garapen-egoeraren eta aplikagarriak diren arau legal eta deontologikoetan ezarritako kalitate- eta segurtasun-mailaren arabera.



AZPIEGITURAK

Honako hauek aurki daitezke Vitoria-Gasteizko Erizaintzako Unibertsitate Eskolan: erabileraren anitzeko irakaskuntza gelak, ekitaldi-aretoa, klaustroa, simulazio aretoak, liburutegia, informatika-gela, ikasteko gelak, atsedeen-gelak.

HARREMANETARAKO

Erizaintzako Gradua
Jose Achótegui, z/g
01009 Vitoria-Gasteiz (Araba)
Telefonoa: 945 21 80 52
Helbide elektronikoak:
eu.enfermeria-vitoria@ehu.eus
www.euenfermeria.org

Unibertsitate-Eskola Escuela Universitaria de Enfermería

Osakidetza



USO
EXCLUSIVO
BARRIO



ELEANIZTASUNA

Erizaintzako Gradu Ikasketak Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan egin daitezke, euskaraz eta gaztelaniaz. Gainera, ingelesezko hautazko irakasgaiak ere eskaintzen dira.

MUGIKORTASUN-PROGRAMAK

Euskal Herriko Unibertsitatearen mugikortasun nazional zein nazioarteko programetan parte hartzera bultzatzen ditugu Vitoria-Gasteizko Erizaintzako Unibertsitate Eskolako ikasleak, irakasleak eta administrazio eta zerbitzuetako pertsonala (AZP).

Programa Nazionalak:

- SICUE, Estatu Espainoleko Unibertsitate nagusietako mugikortasuna: Valentziako Unibertsitatea, Las Palmas Kanaria Handikoko Unibertsitatea, Viceko Unibertsitatea (Manresa), Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa (Terrasa), Balear Uharteetako Unibertsitatea, Huelvako Unibertsitatea.

Nazioarteko Programak:

- ERASMUS+, Europako mugikortasuna: Erresuma Batua, Italia, Portugal, Belgika, Finlandia...
- UPV/EHU-AL eta Beste Norakoak programa, Latinoamerikako unibertsitateetarako. Txile, Argentina, Mexiko...
- Europako Modulua. Eskola honek bakarrik eskaintzen duen programa honetan, bi aste egonaldi eskaintzen da 30 unibertsitateetan 14 herrialdeko.

PRAKTIKAK

Erizaintzako Graduko titulazioan, prestakuntza praktikoari esleitutako kredituak %38,3 suposatzen dute; hortaz, praktikak derrigorrezkoak eta oso garrantzitsuak dira gelan eta simulazio-tailer ezberdinetan hartutako prestakuntza integratzeko.

Vitoria-Gasteizko EUEk errotazio-ibilbide bat du ezarrita praktika klinikoak lau ikasturteetan zehar egiteko, testuinguru sanitarioaren hainbat esparrutako zentro asistentzietan. Horretarako Eskolak lankidetzeta-hitzarmenak Osakidetza/Eoz Sareko Osasun-zentroekin, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearekin eta Gasteizko Udalarekin ditu.

Praktiketan zehar, ikasle bakoitzak bere ikaskuntza garatzen du diziplina anitzeko taldeetan lanean dagoela eta bere gaitasunak, jarrerak eta ezagutzak garatzen laguntzen diote, bere gaitasun-garapen osoa lortzeko helburuarekin.

Izan ere, ikasleek Practicumaren bidez jasotzen duten prestakuntza teoriako eduki diziplinarretatik haratago doa, eta beren garapen pertsonalari eta profesionalari laguntzen dioten alderdi multidimentsionalei eragiten die.



Ezagutza-arloa: Osasun Zientziak

Erizaintza, pertsonak zaintzeko zientzia, ezagutzak garatzen ditu arrazoiketa zientifikoaren barruan, agertzen diren behar sozial eta sanitarioei erantzuna emateko.

Erizainak, legalki gaituta dagoen profesionala den heinean, gizarteari zerbitzua eskaintzen dio, pertsonak laguntza fisiko eta emozionala eskuratu dezaten eta/edo bere burua edo gainontzekoak zaintzeko ezagutzak, abileziak eta jarrerak bereganatzeko. Hala, aldaketa sozial, zientifiko eta teknologikoak etengabe agertzen diren inguru honetan, pertsonen ongizatea bermatzen eta bizitza-kalitatea hobetzen laguntzen dute.

Pertsonak gustuko badituzu, gizakia eta bere osotasuna ulertzen baduzu eta zure motibazioa besteak lagundu eta zaintzea bada -osasunean nahiz sufrimendu- eta/edo ahultasun-egoeretan-, Erizaintzako Gradua hautu egokia da zuretzat.



Graduan ikasitakoarekin, honako hau egin ahal izango duzu:

Pertsonen osasun-beharrei osasun-arreta tekniko eta profesional egokia eskaini.

Osasunean emaitzak lortzeko zainketak antolatu eta eskaini.

Erizaintzako oinarri eta hastapen teoriko zein metodologikoak ezagutu eta aplikatu.

Pertsonen jokaera interaktiboa ulertu.

Pertsoneri, familiei edo taldeei zuzendutako zainketa-sistemak diseinatu.

Erizaintzako esku-hartzeak ebidentzia zientifikoan eta eskuragarri dauden baliabideetan oinarritu.

Pertsonak aurreiritzirik gabe ulertu.

Profesional-talde batekin lan egin.

Osasun-informazioko sistemak ezagutu.

Osasunaren arreta integralean oinarrituta, erizaintzako zainketak egin.

Lanbide-aukerak

- Ospitale publikoak eta pribatuak.
- Lehen mailako arretako zentroak.
- Zentro soziosanitarioak.
- Osasun mentaleko, eskola-osasuneko, lan-osasuneko eta abarreko zerbitzuak.
- Irakaskuntza- eta ikerkuntza-zentroak.
- Erizaintzako zerbitzuen antolakuntza eta kudeaketa.
- Autoenplegua

